

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako higiezinaren gaineko zergaren 2019ko erroldak

Alkatearen uztailaren 29ko 108/2019 Dekretuaren bidez, Berantevillako hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2019ko erroldak onetsi ziren. Orain, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauak 21.2. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen dira. Horiek horrela, udal bulegoetan egongo dira erakusgai, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Errolda horiek udal bulegoetan egongo dira aztergai, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:00etara, azertu ahal izateko eta, hala badagokio, egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Berantevilla, 2019ko uztailaren 30a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY